



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2017/18 Denboraldia

14. ZK DUN ZIRKULARRA

ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGA ERREGULATZEKO ARAUAK

LEHENENGOA.- 2017/18 denboraldiko ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGAn Zirkular honetan agertzen diren arauak berariaz aginduko dute, federazioaren ordenamendu juridikoa osatzen dutenei kalterik egin gabe.

BIGARRENA.- Jokoaren arauak FIFAk argitaratutakoa izango dira..

HIRUGARRENA.- Euskal Ligako partida guztiak aldeberean ERREA URANO eta JOMA GAME SALA baloiarekin jokatuko dira.

Partida hastean, etxeko taldeak 5 baloi izan beharko ditu gutxienez. Horietatik, 2 arbitroarentzat izango dira, eta beste 2 kanpoko taldearentzat.

Xedapen hau betetzen ez duen klubak Lehiaketako Epailearen zigorra jasoko du.

LAUGARRENA.- Taldeek partida hasteko ezarritako ordua baino ordu erdi lehenago aurkeztu beharko dira jokalekuan. Ordu erdi lehenago ere aurkeztu beharko zaizkio lizentziak epaileari, eta kronometratzailea.

Jokalekuan ezin izango da egon bestelako jarduerarik partida hasi baino hamabost minutu lehenago, kanpoko taldeak berotze-ariketak egin ditzan.

BOSGARRENA.- Partidaren hasieran talde bakoitzak gutxienez taldeko ordezkari bat eta SEI jokalaria aurkeztu beharko ditu jokalekuan. Partidan parte hartzeko prest. Bestalde, etxeko taldeak zelaiko ordezkaria izan beharko du derrigorrez, eta behar bezala identifikatuta egon beharko da, bi arbitroen esanetara. Kategoria honetan parte hartzen duten klubek, **Monitor "MOS"** lizentzia izan beharko dute gutxienez eta partida guztietan aurkeztu beharko da. **Entrenatzaile "ES"** "1 Maila" edota Kirol Teknikaria lehenengo kurtsoa tituluduna aurkezteari egin gabe

Betebehar honek maila honetara igo berri diren klubak salbuesten dira. Behar hau, ez bada betetzen, Epaile Bakarrak falta arin edo larrizat hartuko du.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Klubek talde bakoitzeko aldi berean hamabost jokalaria gehienez eta **SEI** gutxienez izan dezakete

10.000 biztanle berako errolda duten herrietan baimen ematen da lau jokalaria gazte izeneman eta jokatzeko maila zaleetan.

SEIGARRENA.- Areto-Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak zuzenduta, dagokion lurralde Batzordeak izendatutako epaile batek eta kronometratzaile batek arbitratuko dute partida.

ZAZPIGARRENA.- Partidak 20 minutuko bi zati izango ditu. Bi zatiak kronometratuko dira, eta gehienez 10 minutuko atsedena egongo da.

ZORTZIGARRENA.- Arbitroei ordainsariak ordaintzeko beharra ez bada betetzen, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplinazko Erregimenaren Arautegiaren 63. eta 51. artikuluek aurreikusitako zigorrak ezarriko dira.

BEDERATZIGARRENA.- parte hartzen duten taldeak aipatzen diren hurrengoak dira

1.Atxurre Berri F.K.T, **2.**Bagituxak C.F., **3.**Batzarre A.D. de Fútbol 5, **4.**Elorrietako F.S., **5.**Erandiotarrak F.S. Mudanzas Luis, **6.**Eskoriatza K.E., **7.**Gora C.D Redblue., **8.**Gernikako Lagunak, **9.**Mahastiak Labastida Rioja Alavesa, **10.**Mallabia F.T Seguros Altaldi., **11.**Mondrate C.D., **12.**Presion Break Berriz, **13.**Scalibur C.D., eta **14.**Sestao F.S.,


HAMARGARRENA.- Lehiaketa-sisteman talde bakarra dago, puntutara eta joan-etorriko partidekin. Guztira hogeita sei jardunaldi izango dira.

HAMAIKAGARRENA.- Igoera eta jaitsiera arloan Areto-Futboleko Euskal Ligako 1, 2, eta 3. postuetan sailkatutako klubak Hirugarren Maila Nazionalera igoko dira.

Kategoria honetako 14. postuan sailkatutakoa dagokion lurralde-ligara jaitsiko da. Sailkapenean horien berehalako aurrekoak ere, nahiz eta 14. postuan ez izan, dagozkien kategorietara jaitsiko dira, Areto Futboleko Hirugarren Maila Nazionalera aldi baterako gertatzen diren jaitsierei jarraiki, maila galduko dute, egoera hau aipatutako mailan klubak gehiegizkoa suposatzen duenean emango da.

Lurralde-kategorietako bakoitzeko lehenengo sailkatuak Areto-Futboleko Euskal Ligara igoko dira. Halaber, Igoera Fase bat jolastuko da lehiaketan hauetan bigarren sailkatuen artean, sortu ahal diren lekuak sailkapen bidez antolatzeko

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HAMABIGARRENA.- .Lehiaketa honetan aginduko duten gainerako arau arautzaileak, eta Zirkular honetan jaso ez direnak, Euskadiko Futbol Federazioaren Arautegian jasotakoak izango dira.

Guztiak ezagutzeko eta dagozkion xedeetarako jakinarazten da.

2017eko irailak 8, Bilbon

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General